

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko irailaren 8a / VI. urtea / 195. zenbakia



Silo zaharra txukuntzen eman dute azken hilabetea Tafallako Gazte Asanbladako kideek.

JOXE LACALLE

Tafallan ere gaztetxea

Iruñea, Barañain edo Altsasuko gaztetxeek badute joan den uztailaren 22az geroztik lagun berria: Tafallako gaztetxea. Bertako Gazte Asanbladak Senpa enpresak Udalari emandako silo zaharra okupatu zuen uda honetan eta martxan daraman hilabete t'erdi honetan eraikina

txukuntzen eta margotzen eman dituzte orduak. Euren ustez Udalak ez du bere hitza bete, eta ez dute uste eurentzako etxerik prestatuko duenik. Jose Luis Ibañez Gazteriarako zinegotziak, ordea, proiektua mahai gainean dutela ziurtatu du. Dirua da oztopo bakarra.

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Parkean lasterka

Guean parkean lasterka egiten dutenen artean batzuk patxadaz ibiltzen dira, geratzen zaizkien kilometroetan edo etxera itzultzean hartuko duten dutxan baino pentsatzen ez dutenak; beste batzuek, berriz, azkarrago egiten dute korrika, hortzak estutu, lasterketa infinito batean beren burua deuseztatu nahi balute bezala, eta berehala antzematen zaie zerbaitetik ihes egiten ari direla, istorio ilun batetik, inoiz maite izan zuten pertsonarengandik edo sekula onartu ez duten iraganetik. Hauek ez dira behin ere etxera itzultzen, gau osoa ematen dute lasterka, egun osoa, eta biharamunean berriro topatzen dituzu parkean, gero eta nekatuago, gero eta isolatuago, gero eta itxaropen gutxiagorekin, lehertu arte dantza egiten zuten neska-mutiko haiek bezala. Gauzak gaizki ateratzen zaizkigunean lasterka ateratzea da bururatzen zaigun lehenengo gauza, atzera begira gabe, baina gero, dena garbiago ikus dezakegunean, ulertzen dugu lasterketa horrek heriotzara eramango gaituela. Astean behin eroritako korrikalariak lurperatzen dituzte parkean eta pasean dabiltzan atso-agureek triste begiratzen dute, hain gazteak dira denak, baina lasterka segitzen dutenak ttu eginez pasatzen dira hilobien ondotik eta biraoka hasiko lirakeke gogoan beren istorio tristea, beren frakasoia, beren desilusia eta emakume baten aurpegia baino zerbait gehiago izango balute. Behin baino gehiagotan galdetu diot neure buruari zergatik ez duten beren burua hiltzen eta kitto. Orain, parkean hainbeste gauetan ibili ondoren, uste dut badakidala zein den erantzuna: beste bizimodu bat aurkitu dute, filozofia bat. Turkiako derbitxeek bezala uste dute etengabeko mugimenduekin nolabaiteko purifikazioa lortuko dutela, beren ezbeharraren arrazoietatik urrundu direla. Ez dira konturatzen denbora guztian bueltaka ari direla parkean, eta erdian pobrezia, abandonatu zituzten emakumeak, haiek beste batzuei inposatutako indarkeria eta beraiei inposatu zieten, beren bizitzako gezur guztiak, eta erotzeko beldurra daudela haiei begira. Guzti hau ikusi dut parkean pasa ditudan gauetan eta inoiz ez itzultzea erabaki dut, badaezpada ere.

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusiko Kultur Etxean, 1995eko festak ilustratzeko aurkeztu ziren kartelak daude ikusgai. Erakusketa irailaren 17a bitartean egonen da zabalik eguerdiko 12etatik arratsaldeko 2etara.

Goide ikus-entzutezko ikuskizuna Iruñeko Planetarioan dago zabalik urriaren 15era arte. Batetik, kartografiaren historia eta mapak nola irakurri behar diren azaltzen den pelikula eskaintzen da eta bestetik, kartografiaren historia biltzen duen erakusketa dago. Ikuskizuna, goizez; 11,30etan eta 12,30etan eta arratsaldez; 6etan, 7etan eta 8etan ikusi daiteke asteartetik larunbatera. Igandetan, 12etan eta 13etan dago zabalik eta astelehenean itxirik.

Abelardo Bolañosen pinturak ikusgai daude Iruñeko San Gregorio kaleko Kaixo tarbenan. Erakusketa, urriaren 2ra bitartean egonen da zabalik.

Iruñeko Jesus Mari Etxea tabernan Albina Ekiza margolariaren pinturak ikusi daitezke. Erakusketa, irailaren 26ra arte dago zabalik San Agustin kaleko tabernan.

ANTZERKIA

Ariben Mozorro Berri 95 ekitaldien barruan, Köllins Clown antzerki taldeak 'Ongi etorriak mendebaldera' lana antzeztuko du igande honetan. Ekitaldia arratsaldeko zazpiretan izanen da herriko plazan.

MUSIKA

Joaquin Sabina andaluziarrok Iruñean joko du bihar. Kontzertua Anaitasuna polikiroldegian izanen da gaueko hamarretatik aitzina.

Zangozan bertako Udalak antolatuta rock kontzertua izanen da bihar. Herriko festen aintzindari Leize eta Ke+da taldeak joko dute Arkada plazan gaueko 12etan. Kontzertua dohainik da.

Fliter eta **Koma** rock taldeek rock kontzertua eskainiko dute asteartean Zizur Nagusian. Emanaldia Alde Zaharreko frontoian izango da gaueko 11etatik aurrera.

ZINEMA

Burlatako Floirac plazan Udako Zinema egitarauaren barruan, 'Star-gate' filma eskainiko da gaueko 10,30etatik aurrera.

BERTSO SAIOAK

Legasan, igandean, irailak 10, egunean zehar Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolari gipuzkorrek ariko dira kantari. Saiok librekoak izanen dira.

Oizko ostatuan, astelehenean, irailak 11an bertso bazkaria izanen da. Bertan, Sebastian Lizaso, Manolo Arozena eta Andoni Egaña bertsolariak kantatuko dute.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Batasunaren pribilejioa

Orain dela 572 urte, gaur bezalako egun batez, Carlos III. erregeak «Batasunaren pribilejioa» dekretua karrikaratu zuen. Horren arabera, Navarrerria eta San Cerningo burgoek eta San Nicolaseko pobla-zioak bat egin zuten. Gerta-

hain maitatua den herrialde honen historiak aipatzen dena hutsaren hurrengo delako. Alkate berriaren egiteko moldeak ezagunak genituen, orain bere alderdia den CDNren irakaspenak jarraituz elkarguneak sortzen ahalegintzen ari da,

Nko alkategaiak zekentasuna du ardatza udal politikagintzan, eta horrez gain ezaguna du hiri zahar txatxu honek duen ezaugarrietako bat, tradizioekiko zaletasunaz ari naiz. Urtean metro karratuko tradizio gehien sortzen duen hiria omen ga-



kizun hori Iruñeko Udalaren sorrera kontsidera daiteke.

Historialari eta herrialde honen apologistak luze mintzo dira garai hartan Iruñeak bizi zuen egoeraz. Alta, jende arruntaren artean inor gutxi azalduko dizu gertakizun horren testuingurua, beste arrazoi batzuen artean oinarritzko eta ertaineko irakaskuntzan

alkatea bera bada gune horien izarra, askozaz hobe. Ospakizunak garai batean taldekideak zituenen haserrea piztu du, Cabasesek mahai gainean duen ikurrinak eragin dien ezinegona gainditu ez dutelarik Chourrauten pittokeriak jasan behar. Chourraut eta Cerveraren arteko liskarrak ez dira honekin amaituko. Gorririko ez duen UP-

ra. Beraz, Udalaren laguntzaz «Batasunaren pribilejioa» festa handia bihur daiteke, Nafarroan gaudeenez meza eta guzti. Datorren urtean, Noingo gatazka gogoratzeko, Gatzaga herrira joateari utzi gabe, Navarrerriako guduaren urtemuga ospatu beharko dugu, horretan ere galtzaile. Batasunaren izenean izan dadila.

ASTEKO PERTSONAIK



Jose Maria Iza
NUPeko Normalkuntza Linguistikorako burua

Jose Maria Iza Etxebeste 54 urteko oiartzuarra izanen da hurrengo lau urteetan Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Normalkuntza Linguistikorako Batzordeko errektorearen laguntzailea. Izak hiru ardatzetan oinarrituko du bere kudeaketa NUPn; beste urteetan bezala euskaraz klaseak eta ikasgaiak ematen jarraitzea eta euskaraz ekintza kulturalak bultzatzea besteak beste. Euskal Filologian lizentziatua, oiartzuarra orain arte Hizkuntzalaritza eta Literatura Saileko idazkaria izan da Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Euskal Filologiako tutorea Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan (UNED).



Francisco Gomez
Argazkilaria

Francisko Gomez argazkilaria 1918. urtean jaio zen Iruñean, nahiz eta txikia zenetik Madrilan bizi izan den. Francisco Gomezek argazkigintzaren teknika eta estetika bere kasa ikasi zuen eta 50eko hamarkadaren erdialdean ekin zion jarduerari artistikoari. 77 urteko artista iruindarrak gauzen ikuspegi berezia eta pertsonala eskaini du bere argazki berezietan, poesia hormetan bilatzen saiatu da beti. 50eko hamarkadatik hona argazkigintzaren berritzailea eta aintzindari izan den artistaren lan nagusiak 'Emozio eraikia' izeneko erakusketan biltzen dira egunotan Nafarroako hiriburuan. Argazkilaria erakusketa Zapateria kaleko udal aretoan dago zabalik hurrengo irailaren 28a bitartean.

AHAZTU GABE!

LEHIAKETA



Salsa eta merenge lehiaketa antolatu du Nazioarteko Periak. Peria, Iruñeko Udalak lagundurik, estreinakoz dator Nafarroako hiriburura. Hainbat herritako ohiturak, kultura eta folklorea erakutsi nahi dituen Nazioarteko Peria, Antoniutti parkean kokatuko da eta gaur hasi eta irailaren 24ra bitartean zabalik egonen da. Lehiaketan nahi duten adineko bikoteek parte har dezakete 54 05 02 telefonora deituz edo peria dagoen tokira hurbilduz. Izena ematea arratsaldeko ordu bietatik bostak arte egin daiteke. Lehiaketarako probak larunbatean hasiko dira eta irailaren 10ean, 16an, 17an eta 23an jarraituko dute. Finala, peria bukatzen den egun berean izanen da, irailaren 24an, gaueko 9.00etatik aitzina. Bai salsa zein merenge lehiaketetan garai le suertatzen diren bikoteek Balearretara bidaiari bana irabaziko dute.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Lizarra

Antzinako Musika Astea Lizarran

N.A. / IRUNEA

Heldu-den astelehenetik ostiralerara arte, Antzinako Musika Astearen 25. ekitaldia izanen da Lizarran, Nafarroako Gobernu-ko Kultura Sailak antolatuta. Aurten atzerriko bost talde ospetsuk kontzertu bana eskainiko dute Lizarrako San Migel elizan, arratsaldeko zortzietan.

Izan ere, aurten aretoa eta ordua aldatu dituzte antolatzaileek. Aurreko ekitaldietan kontzertuak Santa Klara komentuan izaten ziren, baina bertan hiruhun entzulerentzako tokia besterik ez zegoen eta hainbat lagun kalean gelditzen ziren. Hori dela eta, bostehun toki dituen San Migel eliza aukeratu dute aurten aurreneko aldiz.

Orduari dagokionez, aurreko ekitaldietan gaueko bederatzietan egiten ziren emanaldiak, baina, zenbait entzule urrutitik etorzen direla eta, ordubete aurreratzea erabaki dute. Sarrerak egunean bertan salduko dituzte —1.000 pezetan eta 500 pezetan gazte karnetarekin— arratsaldeko seietatik aurrera San Migel elizaren ondoan.

HENRY PURCELLEN OMENEZ Ekitaldi berri honen Henry Purcell XVII. mendeko musikari ingelesa omenduko du, aurten bere heriotzaren hirugarren mendea betetzen delako. Hori dela eta, musikagile barrokoaren obra batzuk interpretatuko dituzte Antzinako Musika As-



Hirugarren emanaldian The Tallis Schollars abesbatza arituko da.

teko lehenengo eta azkeneko kontzertuetan.

Aurreneko kontzertua, astelehenekoa, Charles Brett kontratenore ingelesak eta Collegium Musicum Iribarren instrumentari taldeak —oboe barrokoa, biola da gamba eta organoa— eskainiko dute. Emanaldian Ingalaterrako eta Alemaniako musika barrokoa interpretatuko dute; besteak beste, Purcell, Haendel eta Telemann musikagileen lanak.

Asteartean, Amsterdam Barroque Trio hirukotea ariko da San Migel elizan. Bach eta Vi-

valdi musikagileen sei obra interpretatuko dituzte, flauta, oboe eta klabe musika-tresnekin. Asteazkeneko kontzertuan, berriz, Bepizkunde garaiko musika ingelesa entzuteko aukera izanen dute Lizarrara hurbiltzen direnek. Hirugarren emanaldi hau The Tallis Scholars abesbatzak eskainiko du eta, besteak beste, Taverner, Sheppard eta Whyte musikarien lanak kantatuko dituzte.

Azken-aurreko kontzertuan, ostegunekoan, XVII. mendeko Italiako eta Austriako biolin obrak interpretatuko ditu Roma-

nesca hirukoteak. Biolina ezezik, klabe eta tiorba musika-tresnak ere joko dituzte, Schmelzer, Piccinini eta Rossi musikagileen lanak eskaintzeko.

Antzinako Musika Asteako azken kontzertua ostiralean izanen da. Horretan, The Gabrieli Consort & Players taldeak Henry Purcell omenduaren obrak soilik eskainiko ditu. Lau abeslarik —soprano, baxu eta bi tenore— eta bi instrumentarik, tiorba joleak eta organo joleak hain zuzen, osatzen dute azkeneko kontzertuan ariko den taldea.

Aezkoa

Aezkoako Eguna ospatuko dute igandera bitartean

IRUNEA

Aezkoako Eguna ospatuko dute gaur eta igandea bitartean bertako herritarrek, urtero bezala. Gaur bertan, gaueko bederatzietan Aribeko historiaz mintzatuko da Jesus Arraiza historialaria. Larunbatean, berriz, musikak izango du txoko berezia eguneko ospakizunetan. Gaueko hamaiketan Mister Xaguak taldeak joko du. Ondoren Trakets taldearekin dantzaldia izanen da.

Igandean goizean hasiko dira ekitaldiak argisoinuaren hotsaz. Hamarretan gazta txapelketa izanen da eta hamaiketan herri meza.

Eguerdian, berriz, herri kirolak izanen dira ikusgai eta ordu bitartean bazkaria egingo dute Aezkoako herritarrek.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Amodioa

Rafael Zabaltza Espelosin 'Hontza', Langraizko kartzelan preso zen gazte iruindarra, Txagorritxuko ospitaleko zazpigarren solairutik erori eta bertan seko hil zen joan den astean. Analsiak egitera eraman zuten ospitalera, eta bertan zegoela, polizia zaindarien begiradetatik at, elkarri loturiko maindire batzuen laguntzaz leihoz leiho seigarren solairura jaisten ahalegindu zen. Norbaitek —batek daki nork eta zer dela eta— ez zuela ihes egin asmatu zuen, beheko solairuan hiltzorian zen bere neskalaguna bisitatu nahi zuela hain zuzen ere. Horixe azaldu dute komunikabideek haren heriotzaren inguruan, eta istorio hori bera izan da 'El Pais-eko' zutabe baten protagonista. Jakina, istorio polita da hori, Corin Telladoren liburuetan edota 'Goenkale' euskal sugetzarrean ager litekeena. Ez da, haatik, benetako istorioa. Hontzak asko maite zuen Lourdes neskalaguna, baina Lourdes ez zegoen Gasteizen. Lourdes Iruñean zegoen, hiltzorian eta Iruñean.

Hontzaren benetako istorioa



amodio istorioa da, baina beste-lakoa. Hontzak 26 urte zituen, horietatik 10 inguru kartzelan emanak, eta ihes egin nahi zuen. Hontzak urteak igaro zituen 1. gradu egunero ziegako bakardadean 23 ordu eta patioan ordu bakarra emanik, eta ihes egin nahi zuen. Hontzak kolpe dexente jasoa zituen funtzionariengandik, eta ihes egin nahi zuen. Hontzaren gorputza oso zigorturik zegoen kartzela eta droga urte dexenteren ondorioz, eta ihes egin nahi zuen. Hontza borrokalaria zelako eraman zuten Iruñetik Langraizera, eta ihes egin nahi zuen. Hontzak askatasuna maite zuen, eta ihes egin nahi zuen. Poliziek, epaileek, kartzelak eta kartzelariak ez zuten Hontzaren askatasunarenganako maitasuna birrintzerik lortu, eta ihes egin nahi zuen. Askatasuna maite zuen, askatasunerantz ihes egin nahi zuen, eta heriotzak ere maitasun hori errespetatu zuen, aske hil baitzen Hontza.

Joan den uztailaren 22an Senpa enpresaren silo zaharra okupatu zuten Tafallako Gazte Asanbladako kideek. Tafallako gaztetxearen ibilaldiari hasiera emanez. Urteak eta urteak eman dituzte herriko gazteek eurentzako leku bat eskatzeko, baina Udalak ez die jaramonik ere egin, gaztetxe berriko kideen arabera. Azkenean, beste hainbat herritan bezala, okupazioa aukeratu dute euren asmoa betetzeko.

Gaztetxea edo bestela zer?

EDURNE ELIZONDO / TAFALLA

Tafallako dozenaka gaztek Martinez Espronceda kalean dauden Senpa enpresako silo zaharra okupatu zuten joan den uztailaren 22an. Gaur egun Udalarrena den eraikina aspalditik zegoen hutsik. Tafallako gazteak goizaldean elkartu ziren silo zahararen inguruan eta okupatu ondoren txukuntzen hasi ziren.

Prentsaurrekoa ere eskaini zuten okupazioaren arrazoiak azaldu eta Tafallako Udalarri hainbat kexa lutzeko asmoz: «Urtebete daramagu gazteentzako leku bat eskatzen. Udalak ez digu kasurik ere egin eta hau izan da egin ahal izan dugun gauza bakarra».

Hilabete t'erdia igaro da Tafallako Gazte Asanbladak bere proiektua martxan jarri zuenetik eta gaztetxeko kideek euren egoitza berria txukuntzen eta moldatzen jarraitzen dute. Birtartean, gaztetxearen teilatuean, euren egoeraz mintzatu dira egunkari honekin Maider, Mikel eta Nerea. Gazteentzako lekuri ez izatea «arazo zaharra» da beraiatzat.

«Arazo zahar» hori, haatik, orain dela hamazazpi urte Tafallako gazteek bizi izan zuten euren bakoaren lehenago, eta gaur egunera arte «inork ez du konponterik lortu». Gaur egungo gazteena da orain arazoa. Udaleko bertako hainbat kide ere aitortu egin dute arazoa egon badagoela. Jose Luis Ibañez Gazteriarako zinegotziaren ustez, hain zuzen ere, «Tafallako gazteek ez dute ezer, ez non bildu ezta zer egin ere». Irtenbidea, ordea, ez da erraza berarentzat eta diru falta da arazo nagusia. «Urte oso-rako daukadan aurrekontua 1.300.000 pezetakoa da eta horrekin ezin dut ezer egin». Hori dela eta, Nafarroako Gobernuaren laguntza ezinbestekoa da gazteentzako etxea prestatu ahal izateko bere iritziz.

GAZTEEN ETXAREN UDALAREN JABETZA

Tafallako Gazte Asanbladaren ustez, berriz, dirua baino borondatea da falta dena eta «aurrekontu murrizta ez da guretzat etxerik ez egiteko aitzakiarik. Dirua badute baina ez dute behar bezala banatzen. Hori da arazo nagusia. Orain arte gauza asko agindu dituzte baina ez dituzte bete. Siloa okupatu genuenean ere berriro erran ziguten gazteentzako etxea



Jabetza Udalaren eta gazteen artean banatzea da, Ibañezen ustez, aukerarik aproposena.



Joan den uztailaren 22an okupatu zuten Tafallako gazteek Martinez Espronceda kaleko silo zaharra. Udalak gazteentzako proiektua badu ere, dirua da arazo nagusia.

herriko gazte guztientzat» egokitu nahi duena. Hala ere, oraindik ez dute argi bertan zer egingo duten eta horrek mesfidantza sortzen du gazteengan, beraien ustez, «ludoteka hutsa baita antolatu nahi dutena eta gazteok zerbait gehiago behar dugu». Ibañezek beste irtenbide bat proposatu du: «Liburutegia lekuz aldatzean

Ibañez Gazteriarako zinegotziak ezetz badio ere, gaztetxea aurrera ateratzeko gai direla uste dute Mikel, Nerea, Maider eta Tafallako Gazte Asanbladako gainontzeko kideek ere. «Bada-kigu zer egiten ari garen. Udaleko erabakiak hartu eta antolatzeko gai ez gara uste dute baina oker dira».

Gaztetxea aurrera ateratzeko, halaber, hainbat ekitaldi, erakusketa, ikastaro eta tailer egiteko asmoa dute Tafallako Gazte Asanbladako kideek. Larunbatero elkartzen dira gaztetxearen erabakiak hartzeko eta azkenean, ikastaro edo ekitaldi horietako batzuk egiteko asmoa jaso zuten. Ikastaroetan egindakoa salduz ere, bestalde, bizi ahal izateko dirua atera nahi dute gaztetxekoek. Nafarroako beste hainbat gaztetxetako kideen laguntza ere jaso dute, batez ere Iruñekoarena. Okupazioaren egunean, hain zuzen ere, Iruñeko Gazte Asanbladako hainbat kide egon zen Tafallan. Hala ere, Iruñeko eta Tafallako gaztetxearen egoera ez da inolaz ere berbera Tafallako Gazte Asanbladako kideen ustez. «Tafalla herri bat da eta hemen denok ezagutzen dugu elkar». Hori dela eta, ez dute uste Iruñean bezala indarrez kalera-tzen saiatuko direnik. «Alkateak, gainera, hilabete eskas darama karguan eta gehiegizkoa izanzen litzateke horrelako erabaki bat hartzea».

Hori ez da izango, ordea, gazteek gaitzitu beharko duten oz-

Orreaga 778. urtean

● Abuztuak 14. Gabean. Inguruko oihana batean. Buruzagien biltzarra.

—Beraz... bihar Karlo-manoren armadahemen gaindiagaroten delarik o-dartuko dugu!

—Lemixi ikusi behar dugu egokia den ala ez... ez-takigu funtsezko arrazoiak...

—Ni igorri nute zien laguntzera...iiiiiiiiiiii!

—Zu bakarrik?

—Ba, ni solo. Batzarrean galdegin zuten ea nor zen irrintzilaririk hoberena eta ni izanik hemen nago. Soi-

... eta noiz aflatzen dugu?

—Kori, kori... gose gira...

Abuztuak 15. Gabean. Buruzagien biltzarra (XI. saioa).

—Eupppp! Ekintza, ekintza...!

—Tira... Agoixko... eta ziek zer?

—Ni igorri nute zien laguntzera...iiiiiiiiiiii!

—Zu bakarrik?

—Ba, ni solo. Batzarrean galdegin zuten ea nor zen irrintzilaririk hoberena eta ni izanik hemen nago. Soi-

—Hori, hori, aupp! Ekintza, ekintza!

—Agoixko! Zaude ixilik! Tira... baina izugarriko armada da... behar dugu segurua-nari izan... gu-ziak etorriko al dira?

—Hala dago agindurik... zain gaude... to. hemen da Gartxotena... Zer berri Zaraitzu aldetik?

—Batzarrean partez heldu niz... bihar xinen da gauren jendea ba, baia aetzek ere parte hartzen badute...

—Ederra dugu! Aetzak ez dira etorriko ziek heldu bazirate...

—Eupppp! Ekintza, ekintza! Iiiiiiiiiiiii!

—Agoixko, ixilik!

—Eta kalesak?

—Erronkariko mezulariak abisua eman du abian direla baia zaitzuarrek ez omen dute haien ibarretik pasatzen uzten...

—Ez eta utziko ere... handiak dira kalesak, ez? Ba, bila zatela bertze bide-rik...!

—Baigorriarrak?

—Hoiak erran dute erroi-bartarrak dauden tokian ez direla sekulan agertuko Sorogaingo larreen afera konpondu artio...

—Ekintza, ekintza! Iiiiiiiiiiiii!!!

—Agoixko!!

—Luzaidarrek, bertalde, ez dute daus xakin nahi. tortzerakoan herriaren bar-na iragan zen Karlomano eta ikusi omen zuten zermolako jenio bizia daukan...

nua nere kontu. Eupppp! Ekintza, ekintza! Iiiiiiiiiiiii!

—Eta pardix herri... zera... Artzibartik?

—Hoiak erran dute baietz baldin Karlomano Urrobi ugaldetik goiti heldubada, bertzenaz ezetz... atzerrian ez dutela daus xakin nahi... Bertzaldetik Auritz eta Ahzperrikoak ez dira etorriko turismoa zaindu behar delakoan.

—Beraz... osotara... hamabortz... ez, hamalau eta irrintzilaria... ongi gabiltza historia egiteko...

—Eh! Zer eto azantza hori? Nor heldu da?

—Befiat artzaina nuzue. Astobiskarrean nindagoen ardieki eta bapatean Antso Zakarraren lapur eta hiltzai-le saldoa Karlomanoren armadari oldartzen ikusi dut, ahal zuten guzia ebatsiz eta normahi akatzen...

—Euppp! Ekintza, ekintza! Iiiiiiiiiiiii!

—Ederki! Ederra dugu! Profitatu ez eta gainera guri botako daukute hobena...!



Orain dela hamazazpi urteko gazteek eurentzako etxea eskatu zuten baina ez zuten ezer lortu.

topo bakarra. Izan ere, Jose Luis Ibañez zinegotziak ziurtatu duenez, «silo zaharra hemendik gutxira desagertuko da, errepidea egin behar baitugu». Bere ustez, urtebeteren buruan, gutxi gorabehera, eraitsi egingo dute Senpako eraikin zaharra. Tafallako gazteak, hala eta guztiz ere, ez dira hitz horien beldur, «urteak eta urteak baitaramatzate hori erraten».

Kritikontzi



Noiz entzun ahalko dugu Egin Irratia?

XANTI BEGIRISTAIN

Egia esan ni bizi naizen auzoan, Iturraman, duela gutxi gora-behera bi urte entzun daiteke Egin Irratia, eta izatez, nik sarritan aditzen dut, baina betiko topiko tipikoarekin egiten dugu topo, hau da, entzun entzuten da baina gehienetan oso kalitat eskasarekin. Eta beste batzuetan kalitate hori hain da txarra non entzute bera ere jasangaitza gertatzen baita.

Zergatik gertatzen den hori. Beno, begira, hemen pertsona gheniak heldu samarrak gara, eta gainera gizararen gehiengo ez da batera mozoiloa, beraz, bada-kigu asko ongi nondik doazen tiroak. Laburbilduz esan genezake, hemen, molestatzeko duenari oztopoak jartzen zaizkiola, eta era berean 'gure' aurkako informazioa ematen duena legez kanpo utzi behar dela; kasu honetan, jakina, Gasteiz-Iruñeko gobernuak eta gizarte 'menperatzailea' dira ongiezik sentitzen direnak eta Egin Irratia lege babesik gabe uzten dutenak.

Azken urteotan agintean dire-

nek oso gogoko dute tolerantzia hitza erabiltzea, hona hemen ba uakera bikaina dutena, egiten duten predikua praktikan jartzeko. Egin Irratia legeztatuko balute askoz re tolerante eta demokratiokoagoak izango liriateke.

Gaur egungo gizararen, ust dut argi eta garbi dagoela zenbat eta komunikabide gehiago izan orduan eta aberatsagoa izan daitekeela iritzi publikoa, eta modu berean gizakiak anitzagoak eta adimen zabalagoak.

Egin Irratia entzun ahal izanez gero informazioa eta kontrainformazioa handiagoa da; bertsioak eta joerak kontrastatu ahal izateko hautabide larriagoa.

Hemen, Iturrama auzoan, entzun eta uler daitekeen neurrian, neronek aditzen dut aipatutako irratien zenbait saio, eta esan dezaket nire iritzi apalean behintzat, oso programa interesgarriak botatzen dituztela albiste, iruzkin eta beste hainbat ikuspuntutatik begiratuta ere. Horrela, berrien oreak eta egia bilatzen eta aurkitzen askoz ere errazagoa liteke.

Baina argi eta garbi izan dezagun gobernuak ez digutela horre-

lako deus ere dohainik emango. Alderantziz, sobera ongi dakigu euskal ezker abertzalearen kutsua duen edozerk zer nolako erraiek min ematen dien.

Duela gutxi deitu nuen Egin Irratira arazo hau azaltzeko eta adierazi zidaten Gasteiz eta Iparraldean ere ezin dela entzun baina asmoa dutela pixkanaka-pixkanaka jarri ahal izateko. Honako mezu hau zabaldu nahi nuke hemendik aurrera, gobernuak beste aldean garenok batez ere interesatzen zaigula premia larri Egin Irratiko uhinak helaraztea Euskal Herri osora gure hobe beharrez. Ideia bezala pentsa dezagun hor ari direla aspalditik Euskadi Irratia, Euskal Telebista, Euskalerrria Irratia, Euskadi Gaztea Irratia, Zarata, Eguzki Irratia, eta abar. Oraindik legez kanpo guztiak ere.

Hortaz bada-kigu zer egin behar dugun, gerorrek eskuratu edo bestela jai dugu. Aditu nahi ez duenak oso erraza du, edo irratia ez piztu edo bestela beste emisora-oren bat bilatu, besteok alderantziz egiten dugun bezala.

Egin Irratiak behar gaitu, Egin Irratia behar dugu!

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Elizanburutarrak,edo xuri ta gorrien arteko liskarren adibide bat (II)



Michel Elizanbururen *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan* izeneko lana, *Eskualduna* aldizkarian agerturiko artikulu biltuma dugu lehen eta behin. Liburu gisa agertzerakoan leku, izen, urtea eta inprimatzailerik gabe, kongregazioak hala eskatzen baitzuen, kaleratu zen. Halere, Baionako Musée Basquen gordetzen den ale batean E.S. Dogsonen 1889.eko aipu hau dugu: «The author of this book is the Père Innocentius, Michel Elissamburu, superior of the Ecole Chretienne at Hasparren». Anai Inozentziok ondu liburu Barmuel izeneko beste apez frantxa batek 1797.eko bere *Mémoire pour servir à l'Histoire du Jacobinisme* lanarekin hasi ideien barna ulertu behar da. Liburu honek bigarren argitalpen bat badu 1890. urtean, Baionako Laserre etxean, al daketa bat ere bere testuan aurkezten ez duena. Baina idazleak edizio hau aprobetxatzen du beste idazki bat gehitzeko: *Frantziako hirur errepublikan historia laburki bai eta zont bat hitz bigarren errepublikaz nola oraiko hirugarren huntaz azken egun huntaraino*. Hontan, erregearen Kristorekin parekatze simbolikoa gauzatzen da iraultza epaitzerako orenean. Aunitz datu eskainiz eta era trajiko eta izugarri batez lantzen du gaia. Bigarren errepublikaz aritzeraoan aldiz, modu ironiko eta farre-garriz egiten du. Azkenik, hirugarren errepublikaz iharduterakoan, aurrerakoien neurrien kirtika latz eta zuzena proposatzen du: «Orain dugun hirugarren errepublika hau, 1848ko bezala da erdi mensa edo erdi imizila». Elizanburuk berak ez du bere burua historiagiletzat, eta azken buruan berak duen asmoa zera da, gori gorian zegoen zioan bere iritzia azalaraztea eta euskaldunen hazkuntze ideologiko egokia. «Arrazoinekin erran dut autor handi batek Erreboluzioa dela bere funtsez edo berenaz debruzkoa, eta orok bada-kigu debrua bethi nahi dituela hedatu bi gauza: gezurra eta gaizkia. Preseski, orai duela ehun urteko, eta orai ere erreboluzioa maite duten gizonek mila gezur eta mila promes dute ahoan debruek bezala, eta dute egiten oraino ahal bezenbat gaizki munduan. Estonagarri da nola ez ditugun begiak idekitzen gauza horri, eta nola ditugun uzten buruak zoroki enganatzerat. Ez da iguzkiaren azpian jenderik frantsesak baino aipatuagoak direnik, beren argiez eta jakitatez, beren bihotz-onaz eta beren karitatez edo amonez. Bizkitartearen iragan mendearen akhabantzan agerri ziren Afrikako beltzen, Ameriketako salbayen eta Ozeaniako lehen elgar jaten zutenen pare». Olabeaga anaiak 1959.eko

Egan aldizkarian Michel Elizanburuz egiten artikulu batetan honela definitzen du haren xedea liburu honekin: «Gure anaiaren asmo osoa zan nekazari ta jende xehea kristau, euskal eta errege zaletasunetan tinkatu eta sendotu».

Jean Baptiste Elizanburu Irazabal Saran sortu zen 1828. urtean. Nafarroarekin biziki lotua dakerkigu, izan ere, aita Heletarra baitzuen eta ama Zugarramurdiko alaba. Iztirlarko bi etxeetan bizi ziren, Piarresena eta Adametan, eta handik hartu bide zuen bere idazkietan usuen erabili goitizena, Piarres Adame alegia.

Larresoro ikasi zuen, eta 1849.ean ikasketak jada burutu, Frantziako gudaostearen sartu zen, Granaderoren kapitaina izatera ailegatu zelarrik. 1870.ean alemanek preso hartu zuten Metz hirian, eta libre geratzen, bere etxera itzuli egiten zen. Orduan Ezpeletako barrutiko bakeezko juleja izan zen, 1891.ean hil zen artio. Hauxe bere lehengusua ez bezala, gorria zen, errepublikazalea. Gorrien artean bestelakoak baziren; Donibane Lohitzuneko medikua eta Abbadiek antolatu sariketetan behin baino gehiagotan irabazte suerta Guilbeau, Mauleko notari eta kantu biltzailea zen Sallaberry, edo Arturo Campion bera. Jean Baptistek txurien artean ere lagunak bazituen.

Biziki olerkari oso baten. Nahiz lan guti izkiriatu, eta berari egotzitako aunitz bereak ez izan, Abbadiek antolaturiko Sara eta Urruñako bertso txapelketa ugari irabazi zituen: 1855.ean *Emazte edgela*, 1858.ean *Tan, tan, tan, tan, rastapetanplan*, 1860.ean *Gazte hiltzera doana*, edota oso famatua den bere 1861.eko *Nere etxea*. Prosan elaberri bukatu gabe bat utzi zigun: *Piarres Adame*. Donibane Lohitzuneko *La Nivelte* aldizkarian hasi zen agertzen atalka 1886. urtean, 5. kapitularaino soilik. Aldizkari gorrihau 1883.ean sortu zen, bere kazetaririk nabarmenena J.B. Deluc izanik. 47 ale kaleraturik desagertu zen, 1886.ean Jules Louittek arrapizteko harzara. Bederatzi kapitulo osoak agertu ziren geroxeago *La Réveil Basque* Berdolyren astekari errepublikanoan, 1887.eko ekainaren 26tik 1888.eko martxoaren 18ra arte. Liburu bezala 1888.ean agertu izan zen Pabeko Garetetxan izenburu honen azpian *Piarres Adame saratarraren zenbait historio Lphurdiko eskuan*. Bigarren edizio bat Pierre Lafitteren eskutik egiten zen 1946.ean Baionan, eta oraino hirugarrenbat 1982.ean Donostian Itiurralderen (Lafitte beraren) *Murtuts eta bertze* lanarekin batera. Azkenekoa Klasikoak bildumaren barruan agertu zen 1986.ean Ibon Sarasolak ondua.



■ Euskadiko IX. banakako txapelketako partida, 1995eko apirillean jokatu.

Jesus Maria Iruzubietza, 2.410 ELOkoa (Bizkaia) — Mario Gomez, 2.460 ELOkoa (Bizkaia).

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,Zc6; 6.f3. Erregearen alde erasotzeko lehenengo urratsa.

6.....Db6; 7.Zb3,c6; 8.De2,A6; 9.g4, Ae7; 10.h4,Dc7; 11.Ae3,b5; 12.0-0,Ab7; 13.Eb1.

Zuhurtasunagatik, Bazuen aukera 'g5' egin, eta aurrerapenari jarraitzeko.

13.....Gc8; 14.g5,Zd5; 15.Df2,cZ-e5; 16.Zd4,Zc5; 17.Ah3,b4; 18.cZ-e2,Zc4; 19.Ac1.

Beltzak oso erasokor daude. Txuriek erregearen babesa zaindu behar izan dute.

19.....0-0.

Txuriei sartzen saiatzeko aukera sortu diete horrela.

20.h5,Db6.


IKUS KUADROA. Denbora gehiegito galdutako beltzek. Txurien erasoaldia geldiezia izan da.

21.b3,Za3 xa; 22.Aa3,a3; 23.h6,g6; 24.Ze6,e6; 25.Ae6 xa,Gf7; 26.Dd4,Af8; 27.Af7 xa,Ef7; 28.Dh8,Ee8; 29. Dh7,d5; 30. Dg8, Ze6.

Partida erabakita zegoen, baina are errazagoa jarri zaie txuriei.

31.Dg6 xa,Ed7; 32.d5.

Txikizioa erabatekoa izanik, beltzek men egitea besterik ez zuten izan. ■



Matxinbeltzeneak, IKAk Lesakan duen barnetegiak, ez du atea zabalduko urrian hasiko den ikasturte berrian, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza ukatu egin baitio «Nafarroan dagoelako». Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntza, ordea, ez da aski barnetegia aurrera eraman ahal izateko. Sagrario Aleman IKako Nafarroako arduradunak «atzerapausotzat» jo du barnetegia itxi behar izatea.


Nafarroako barnetegiari agur

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Matxinbeltzeneak, IKAk Lesakan duen barnetegiak, ez ditu atea zabalduko urrian hasiko den ikasturte berrian, Eusko Jaurlaritzak —iaz bezala— dirulaguntza ukatu egin baitio, «barnetegia Nafarroan dagoelako». Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntza, bestalde, ez da nahikoa barnetegia zabaldu ahal izateko. Sagrario Aleman IKako Nafarroako arduradunak azaltzen duen legez, «Eusko Jaurlaritzak ematen zingunaren erdia baino ez baita. Harekin ozta-ozta ibiltzen baginen, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin ezin dugu deus egin». Bestelako diru iturriren bat aurkitzea izanen litzateke, bere ustez, barnetegia berriro zabaltzeko aukera bakarra. Ildo horretatik, hain zuzen ere, aukera guztiak aztertu nahi ditu IKAk eta «Madrilgo Gobernuari ere eskatuko diogu ahal izanez gero».

1991. urteko abenduaren 24an abiatu zen Matxinbeltzenea. IKAk etxe zaharra erosi zuen Lesakan eta, konpondu ondoren, aterbea, taberna, jatetxea, eskalategia eta barnetegia jarri zituen bertan martxan. Lesaka bezalako alde euskalduna aproposena iruditu zitzaion IKari halako etxe bat zabaltzeko. Inbertsio handia egin zuen IKAk etxea erostean, «baina handik eta hemendik, nola edo hala lortutako dirulaguntzei esker lortu genuen diru apur bat, ez asko». Tabernaren bidez, halaber, beste diru iturri finko bat lortu nahi zuten IKako kideek, maileguak ordaindu ahal izateko.

Matxinbeltzenearen bidez espero zuten guztia lortu ez badute ere, IKako arduradunak kontent agertzen dira bertara ikastera jo duen ikasle kopuruarekin, «ez baita beti erraza halakoetan parte hartzea. Batzuetan denbora falta da eta bestetan dirua». Hala ere, urte osoan zehar, batez beste 40 edo 50 ikasleko taldeak izan dituzte, eta udan, berriz, 70era ere iritsi da kopuru hori. Ikasle hauen jatorriari dagokionez, bestalde, nahiz eta barnetegia Gasteizko IKAk atolatu, Euskal Herri osotik etortzen ziren. Barnetegia momentuz behintzat itxi behar izatea, hortaz, galera handia da ikasle hauentzat guztientzat Sagrario Alemanen iritziz, «Nafarroan zegoen barnetegi bakarra galdu baita. Atzerapausoa da, aukera bat galtzen baitute euskara ikasi nahi dutenek». Bizkaia eta Gipuzkoan ere badira AEK-k antolatutako barnetegiak, baina Matxinbeltzeneare-



Matxinbeltzenea IKAk Lesakan duen etxea agertzen da goiko argazkiak. Eskuinaldean, berriz, Sagrario Aleman Nafarroako arduraduna.



kin IKAk zuen bakarra itxi da, oraingoz behintzat. IKako zentroak Araba, Nafarroa eta Lapurdin zehar daude hedatuta baina barnetegia Lesakan jarri zuten, «euskara bizi-bizirik baitago bertan».

Gauzak, ordea, ez dira uste bezala gertatu eta Sagrario Alemanek onartzen du tabernaren asmoak ez duela uste zuten guztia

eman, «azken finean, gu ez baikara tabernariak». Eusko Jaurlaritzatik eta Nafarroako Gobernutik lortutako dirulaguntzek ere ez diete Matxinbeltzeneak zituen behar guztiei erantzuna eman. Hori dela eta, nahiz eta eskalategiak eta aterpeak bere horretan jarraitu, barnetegiak ez da egiten, «bestelako diru iturriak lortu ezean». Hala ere, IKA prest

agertu da barnetegia erabili nahi duten taldeen esku uzteko, «gure barnetegia egin ordez kanpokoei aukera emanez». Halaber, ibilaldiak egiteko ere ingurunea ongi ezagutzen duten begiraleak eskainiko dizkie IKAk talde hauei. Taberna eta jatetxeak dagokionez, bestalde, beste norbaiti alokatzea da IKAk duen asmoa, Sagrario Alemanek azaltzen du-

nez, «hasieratik bertan egon den giro euskaldunari utsiko dion norbaiti, beti ere».

«EZ DA PORROTA» «Lesakarrek, agian, porrot egin dugula uste izanen dute eta horrek asko kezkatzen eta tristetzen nau, guretzat ez baita porrota», aitortzen du IKako Nafarroako arduradunak. Izan ere, Matxinbeltzenea martxan jarri zenetik, «erabat murgildu dira bertako herritar guztiak gure proiektuan. Pozik hartu dituzte kanpotik euskara ikastera hurbildutako guztiak eta, nere ustez, barnetegiak eurengan izan duen eragina ukazina da».

Porrota edo axolagabekeria norbaitena bada Administrazioarena da Sagrario Alemanen ustez. «Ez dira helduen alfabetatzeak duen garrantziak jabetu, eta hori gertatzen ez den bitartean, arazo edo gai honekiko sentibiltasunik ez duten bitartean, ez dugu gure herria euskaldunduko», azpimarratzen du argi eta

Administrazioa eta gizartea ez dira helduen alfabetatzeak duen garrantziak jabetu».

garbi IKako Nafarroako arduradunak. Are gehiago, euskararekiko oro har eta zehazki helduen alfabetatzearekiko axolagabekeria, Administrazioarena ezezik gizarte osoarena ere bada Sagrario Alemanen ustez: «Euren ustez nahikoa da haurrek ikastetxeetan euskaraz ikastea. Horrela euskalduntzea lortuko dugula uste dute baina oker daude. Noski, haurrek euskaraz ikastea eta euskaraz alfabetatzea funtsezkoa da, ezinbestekoa, baina helduen alfabetizazioa ere haurrena bezain premiazkoa da. Bestela, ikastolan edo eskolan ikasi dutena ezin izango dute gero gizartean erabili». Hortaz, euren porrota baino gehiago, Administrazio edo erakundearen axolagabekeriaren ondorioa da Matxinbeltzeneko barnetegia itxi beharra, «ez baitira konturatzen halako proiektuen garrantziak». IKAk, hala ere, ez ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin dituen negoziaketak bukatutzat jo, nahiz eta jakin denbora gutxi barru hasiko den ikasturte berrirako dirulaguntzarik ez duela izanen.

«Korrika egitea da gogorrena»

N. AMIGOT / IRUÑA

Heldu den azaroaren 10ean, Kancun-en (Mexiko) egingo den Munduko triatloi txapelketan lehiatuko da Nerea Martinez iruindarra. Era berean, baliteke Joko Olinpikoetara ere joatea triatloian diharduen 23 urteko kirolari hau.

EGUNKARIA.—Aurten jada bigarren aldiz izan zara Europako txapelketan baina, Mundukora joateko itxaropenik bazenuen ala ustekabea izan da?

MARTINEZ.—Ustekabea, ederra gainera. Duela hilabete bat Espainiako lasterketan sailkatzea lortu nuenean, sinesgaitza egin zitzaidan. Aurreko egunetan izandako Europako txapelketan ez nintzen oso ongi aritu eta ez nuen itxaropen haundirik. Dena dela, Kankunen bertan egon arte ez dut sinetsiko. Jakin badakit ez dudala aukera haundirik izango, baina trebatzeko balioko dit.

EGUNKARIA.—Munduko txapelketara ezezik, Atlantako Olinpiadetara ere joango zara ziurrenik.

MARTINEZ.—Datorren urtean Atlantako Joko Olinpikoetan triatloia erakusketa-kirola izanen da eta badirudi egun Espainiako selekzioaren barruan gaudenok hara joango garela; gauzak aldatzen ez badira eta diru arazorik ez badago behintzat.

EGUNKARIA.—2000 urteko jokoetan, berriz, triatloia lehiaketa-kirola izanen da. Baliteke horietan ere parte hartzea.

MARTINEZ.—Hori kirolari guztien ametsa eskuratzea izango litzateke, Olinpiadetan lehiatzea edonoren ilusia baita; baina oso urrun ikusten dut, bost urtetan gauza anitz gerta daitezkelako. Nik honetan urte askotan segitzeko asmoa daukat, zaharra izan arte alegia, baina hain gogor eta seriooki entrenatzea, orain egiten dudan bezala, ez dakit noiz arte egin ahal izango duan.

EGUNKARIA.—Kirolaren munduan igeriketan hasi zinen eta urte askotan aritu ere bai. Nola erabaki zenuen triatloia

egitea?

MARTINEZ.—Bederatzi urte nituela hasi nintzen igeri egiten eta zortzi urte igaro ondoren erabat desilusionaturik utzi nion. Izan ere, asko entrenatzen nintzen eta gero txapelketetan ez zen islatzen egindako lana. Baina kirola asko gustatzen zait eta zerbait egin nahi nuen. Oraindik ige-

egiten zela eta horretan ziharduten zenbait kirolari bazeudela hemen ere.

EGUNKARIA.—Kirol bat bakarrik egin beharrean, hiru batera egiten dituzu. Zein da gehien gustatzen zaizuna eta zein gogorrena?

MARTINEZ.—Hirurak lotuta daude eta zaila egiten zait bantzea. Dena dela, txirindula

jardun dudalako. Lehiaketetan, berriz, gogorrena korrika egitea da, egiten den azkeneko delako eta hankak ordurako nekaturik daudelako.

EGUNKARIA.—Luzeraren arabera badaude zenbait triatloi lehiaketa mota. Zuk bitan hartu duzu parte; luzeagoetan aritzeko asmorik baduzu?

MARTINEZ.—Bai, luzeak nahiago ditut, zenbat eta metro gehiago orduan eta hobe. Orain arte egin dudak luzeena 'b' izenekoa da: 2.500 metro igeri, 80 kilometro bizikletan eta 20 kilometro lasterka. Dena dela, luzeagoak diren beste bi txapelketa motatan parte hartzea gustatuko litzaidake eta horri begira ari naiz entrenatzen.

EGUNKARIA.—Hiru kirolekin batera aritzeko gaitasun berezirik izan behar da?


MARTINEZ.—Triatloia egiteko batez ere borondate handia behar da. Kirol honetan borrokalari izan behar duzu, bestela sasoiak galtzen duzu eta oso zaila da berreskuratzea. Gaitasuna baino gehiago, entrenatzeko gogoia behar da. Ni, adibidez, astean sei egunetan batez beste 5 orduz entrenatzen naiz.

EGUNKARIA.—Triatloian babeslerik lortzerik ba al dago?

MARTINEZ.—Hemen oso zaila da lortzea. Beste herrialde batzuetan badaukate esponsorren bat eta, bizitzeko adina ematen ez badiete ere, bidaiak, arropa eta bestelakoak ordaintzeko beste badaukate. Nik, ordea, ez daukat. Dena dela, lortzen ditudan sariekin zerbait ordain dezaket.

EGUNKARIA.—Nafarroan triatloian lehiatzen den emakume bakarra zara, ba al dago gizonik?

MARTINEZ.—Lehen bazeuden batzuk, batez ere duatloian aritzen zirenak, baina azken bi urteotan lehiaketetan parte hartzeari utzi egin diote, motibaziorik eta dirulaguntzarik ez dutela eta. Iruñean emakume bakarra nahiz baina euskal zirkuituan emakumeen maila ona da.



Nerea Martinezek urte askoan segitu nahi du kirola egiten.

Entrenatzeko, bizikleta gustatzen zait gehien, eta igeri egitea gutxien

rilari nintzela, Iruñeko maratoi-erdia korritu eta irabazi nuen. Hori zela eta, atletismo talde batetik deitu ninduten eta horretan entrenatzen hasi nintzen. Orain dela lau urte, berriz, Frantziako aldizkari baten bitartez jakin nuen triatloia

da entrenatzeko gehien atsegin dudana, batez ere ibilbideak alda daitezkelako. Igerilari izan naizela eta gezurra badirudi ere, igeri egitea da entrenatzeko gutxien gustatzen zaidana; agian horregatik egiten zait astuna, hainbeste urtetan

Nerea Martinez

TRIATLOILARIA



Soslaia

Entrenatzailearen laguntza

Nerea Martinezek borondate handia dauka eta kirola maite du. Entrenatzea asko gustatzen zaio eta noizbait, bere entrenatzaileak agindutakoaren kontra, atsedean egunean ere aritu izan da. Dena dela, argi dauka kirolari neurria hartu behar zaiola. «Zaharra izan arte kirola egitea gustatuko litzaidake; ez dut nahi urte gutxiren buruan, entrenatzeaz nazkatuta nagoela eta, kirola egiteari uztea».

Ildo horretan, Jorge Iriso bere entrenatzailearen laguntza eskertzen du Nereak. Bere ustez, kirolariak ezinbestekoa du aditu baten laguntza, «eta nik badaukat, Madrilen INEFen ikasi eta ondoren EEBBetan kirol fisiologiako masterra egin baitzuen» Irisok.

PANE LUCRANDO

MARK O'POLE KOLONOAREN DOKUMENTALAK



ZALDI EROA